# *Asistentzia Mediko-Farmazeutikoko Aseguru Libreko Entitateen Estatistika*

*Estadística de Entidades de Seguro Libre de Asistencia Médico-Farmacéutica*

## EMAITZEN ANALISIA

ANÁLISIS DE RESULTADOS

# 2002

Eustat
EUSKAL ESTATISTIKA ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE ESTADÍSTICA
www.eustat.es

## INTRODUCCIÓN

Nuestro sistema sanitario contempla el aseguramiento privado como una vía más a la que puede recurrir la población en busca de atención sanitaria y, en este caso, las Entidades de Seguro Libre de Asistencia Médico-Farmacéutica se convierten en los principales proveedoras de los servicios sanitarios.

Las Entidades privadas, en su función de provisión de asistencia sanitaria, ofrecen a sus asegurados servicios de atención sanitaria mediante el pago de una prima, recibiendo las prestaciones fijadas en el seguro contratado, pudiendo ir desde una garantía de asistencia sanitaria general (médica y hospitalización) a otras de carácter exclusivo o complementario (seguro dental).

La Estadística de Entidades de Seguro Libre de Asistencia Médico-Farmacéutica (en adelante ESL), junto a la Estadística extrahospitalaria, Estadística Hospitalaria y Estadística de Morbilidad Hospitalaria, forma parte de las Estadísticas de Sanidad y Salud contempladas dentro del Plan Vasco de Estadística 2001/2004. Desde que Eustat iniciara la primera edición de la Estadística de ESL con datos correspondientes al año 1993, su objetivo ha sido dar información económico-asistencial del sector de aseguramiento en la rama de asistencia sanitaria en el ámbito de la C.A. de Euskadi.

El presente informe sobre la Estadística de Entidades de Seguro Libre de Asistencia Médico-Farmacéutica hace un balance del sector de seguro libre de asistencia sanitaria en el ámbito de la C.A. de Euskadi en el año 2002, suministrando datos propios en materia de aseguramiento, tales como población asegurada, modalidades de pólizas, cobertura sanitaria, primas, recursos, y actividad asistencial y económica, además de información sobre la evolución del sector en los últimos diez años (1993-2002), con datos adicionales del mercado asegurador en el Estado.

Con el fin de dar una visión global del sector de aseguramiento, antes de entrar en detalle con el análisis, adelantamos a continuación los datos más destacables en el año 2002 :

## SARRERA

Gure osasun-sisteman, osasun-asistentzia jasotzeko beste bide bat da aseguru pribatua eta kasu horretan, asistentzia mediko-farmazeutikoko aseguru libreko entitateak dira osasun-zerbitzuen hornitzaile nagusiak.

Entitate pribatuek osasun-asistentziako zerbitzua eskaintzen diete euren aseguratuei eta prima ordaintzearen truke, aseguratuek kontratatutako aseguruak zehaztutako prestazioak jasoko dituzte. Zerbitzu horiek osasun--arreta orokorretik (medikuak eta ospitaleratzea) hasi eta esklusibo edo osagarrietaraino (hortz-asegurua) bermatzen dituzte.

Asistentzia mediko-farmazeutikoko aseguru libreko entitateen estatistika (hemendik aurrera ALE), Ospitale-estatistika eta Ospitaleetako erikortasunaren estatistika dira, 2001-2004 aldirako Euskal Estatistika Planak jasotzen dituen Osasunaren Estatistikak. Eustatek 1993. urteko datuekin egin zuen ALEen estreinako edizioa eta ordutik du helburu Euskal AEren eremuan, osasun-asistentzian aseguruen sektorearen ekonomia- eta asistentzia-informazioa ematea.

ALEen estatistikaren gaineko txosten honek osasun-asistentziako aseguru librearen sektoreak 2002.urtean Euskal AEn izandako balantzea dakar. Horretarako, aseguruen hainbat datu jaso ditu, besteak beste, biztanleria aseguratua, poliza-motak, osasun-estaldura, primak, baliabideak eta asistentzia- eta ekonomia-jarduera. Orobat eman ditu sektoreak azken hamar urteetan (1993-2002) izandako bilakaeraren datuak eta Estatuko aseguru-merkatuko datu osagarriak ere.

Aseguru-sektorearen ikuspegi orokorra eman nahian, analisiarekin hasi aurretik, hona 2002. urteko daturik aipagarrienak:

- La población asegurada por las ESL alcanzó la cifra de 310.796 personas, lo que supone un aumento del 3,9% respecto a 2001 y un cambio en la tendencia de los últimos diez años (1993-2002), marcada por el descenso paulatino del número de asegurados.

- Aunque la modalidad de póliza individual o familiar es la que agrupa al mayor número de asegurados (54,9%), la modalidad de póliza colectiva (dirigida a empresas u otros colectivos concretos) fue la que registró un mayor crecimiento, cobrando cada vez mayor protagonismo dentro del mercado asegurador.

- La inmensa mayoría de los asegurados (98,3%) tiene suscrita una póliza con cobertura en asistencia sanitaria general, y el seguro dental, aunque tan sólo representa el 0,6% de los asegurados, ha experimentado un incremento del 6,7% respecto al año anterior.

- El volumen de negocio del sector asegurador de asistencia sanitaria en el año 2002, medido por las primas recaudadas, ascendió a 137 millones de euros, con un crecimiento del 5,8% respecto a 2001, representando un 0,3% del PIB de la C.A. de Euskadi.

- ALEek 310.796 aseguratu izan zituzten, hau da, 2001ean baino %3,9 gehiago. Ondorioz, azken hamar urteetan (1993-2002) aseguratuak pixkanaka gutxitzeko joera aldatu egin da.

- Aseguratu gehienak (%54,9) hartzen dituen poliza-mota banakakoa edo familiako izan arren, poliza kolektiboak (enpresei eta beste zenbait kolektibo jakini zuzendua) hazkunde handiago izan zuen eta gero eta garrantzitsuagoak dira merkatu aseguratzailean.

- Aseguratuen gehiengo handiak (%98,3) osasun-asistentzia orokorreko estalduradun poliza dauka. Hortz--aseguruak, aldiz, aseguratuen %0,6 bakarrik hartuta ere, aurreko urtean baino %6,7 gehiago izan ditu.

- Osasun-asistentziako aseguru-sektoreak honako negozio-bolumena izan zuen 2002an: jasotako primetan neurtuta, 137 milioi eurora iritsi zen, 2001. urtearen aldean %5,8ko hazkundea izan zuen eta Euskal AEko BPGaren %0,3 hartu zuen.

**1. TAULA: ASISTENTZIA MEDIKO-FARMAZEUTIKOKO ASEGURU LIBREKO ENTITATEEN ALDAGAI NAGUSIEN BILAKAERA 2001-2002 ARTEAN.**

TABLA 1. EVOLUCIÓN DE LAS PRINCIPALES VARIABLES DE LAS ENTIDADES DE SEGURO LIBRE DE ASISTENCIA MÉDICO-FARMACEUTICA ENTRE 2001 Y 2002

| | **EUSKAL AE** C.A. DE EUSKADI | | | **ESTATUA (*)** ESTADO (*) | |
|---|---|---|---|---|---|
| | **2002** | **2001** | **Δ 02/01** | **2002** | **Δ 02/01** |
| **KARTERAREN LABURPENA** RESUMEN DE CARTERA | | | | | |
| **Primak (mila €) /** Primas (miles €) | 137.086 | 129.520 | 5,8 | 2.756.439 | 9,6 |
| **Aseguratuko prima (€)** Prima por asegurado (€) | 441 | 433 | 1,8 | 443 | 6,4 |
| **Aseguratuak /** Asegurados | 310.796 | 299.050 | 3,9 | 6.134.904 | 2,9 |
| **Biztanleri aseguratuaren %** % de Población asegurada | 15,1 | 14,4 | 4,9 | | |
| **Polizak /** Pólizas | 158.158 | 151.849 | 4,2 | | |
| **MOTAK (aseguratu-kopuruak)** MODALIDADES (número de asegurados) | | | | | |
| **Banakakoak edo familiarrak** Individuales o familiares | 170.578 | 165.619 | 3,0 | 2.936.406 | 0,9 |
| **Kolektiboak /** Colectivas | 80.316 | 75.932 | 5,8 | 1.141.084 | 11,5 |
| **Mutualitate publikoak /** Mutualidades públicas | 59.902 | 57.499 | 4,2 | 2.057.414 | 1,5 |
| **ASISTENTZI JARDUERA** ACTIVIDAD ASISTENCIAL | | | | | |
| **Kontsulta-kopurua (milakoak)** Nº de Consultas (miles) | 1.165 | 1.128 | 3,3 | | |
| **Ospitaleratutako pazienteak** Pacientes ingresados | 40.186 | 37.281 | 7,8 | | |
| **Egonaldiak /** Estancia | 147.296 | 138.682 | 6,2 | | |
| **Batez besteko egonaldia /** Estancia media | 3,7 | 3,7 | | | |
| **Ebakuntza kirurgikoak ospitaleratuetan** Intervenciones quirúrgicas en hospitalizados | 29.066 | 27.893 | 4,2 | | |

**(*) Iturria: 889. txostena, El Seguro de Salud. Estadística año 2002, ICEA (Investigación Cooperativa entre Entidades Aseguradoras y Fondo de Pensiones).**
Fuente: Informe nº 889, El Seguro de Salud. Estadística año 2002, ICEA (Investigación Cooperativa entre Entidades Aseguradoras y Fondo de Pensiones).

## POBLACIÓN ASEGURADA

El número total de asegurados por las Entidades Privadas de Seguro Libre de Asistencia Médico-Farmacéutica (ESL) que operan en la C.A. de Euskadi se situó en 2002 en 310.796 personas, un 3,9% más respecto al año anterior, lo que supone, en términos generales, que un 15,1% de la población de la C.A. de Euskadi es beneficiaria de una de las 158.158 pólizas de seguro de asistencia sanitaria.

Este volumen de asegurados se distribuye entre los tres territorios históricos del siguiente modo: el 12,4% del total corresponde a Alava, el 70,7% a Bizkaia y el 16,9% restante a Gipuzkoa.

## BIZTANLERIA ASEGURATUA

Euskal AEn aritzen diren asistentzia mediko-farmazeutikoko aseguru libreko entitateek (ALE) aseguratutakoen guztizko kopurua 310.796 lagunekoa izan zen 2002an, hots, 2001ean baino %3,9 gehiago, eta osasun-asistentziako 158.158 aseguru-polizen onuradunak biztanleriaren %15,1 ziren.

Aseguratuen bolumena honela banatu da hiru lurralde historikoetan: guztizkoaren %12,4 Arabari dagokio, %70,7 Bizkaiari eta gainerako %16,9 Gipuzkoari.

Distribución porcentual de los asegurados por territorios históricos. Gráfico 1 Grafikoa **Aseguratuen portzentajezko banaketa lurralde historikoka**




El porcentaje de población asegurada varía sustancialmente por territorios históricos. Así, Bizkaia es el territorio que manifiesta una mayor propensión al aseguramiento en asistencia sanitaria, con el 19,9%, seguido de Alava (13,4%) y a mayor distancia de Gipuzkoa (7,9%); sin embargo, en términos relativos fue en Alava donde más creció el número de asegurados (5%) respecto a 2001, frente a Bizkaia y Gipuzkoa, que tuvieron un incremento del 4% y 3%, respectivamente.

**Examinando la evolución en la última década**, el aumento de la población asegurada en 11.746 personas (+3,9%) respecto a 2001 (por encima del 2,9% registrado en el Estado), supone una inflexión en la tendencia decreciente de estos últimos diez años (1993-2002); aún así, este crecimiento no ha sido suficiente como para alcanzar la cifra de 358.855 asegurados de 1993. De hecho, entre los años 1993 y 2002 la población asegurada ha disminuido en 48.059 personas (13,4%), así como el porcentaje de población asegurada, que ha pasado de representar el 17,1% en 1993 al 15,1% en el año 2002.

Aseguratutakoen ehunekoetan aldeak dira lurralde historikoaren arabera. Bizkaiak ageri du osasun-asistentziako asegurua egiteko joerarik handiena (%19,9), ondoren Arabak (%13,4) eta urrunago Gipuzkoak (%7,9). Hala ere, balio erlatiboetan Araban izan da gehikuntzarik handiena, 2001. urtearen aldean %5 gehitu baitira aseguratuak. Bizkaian eta Gipuzkoan, %4 eta %3 gehitu ziren, hurrenez hurren.

**Azken hamarkadako bilakaerari dagokionez**, aseguratuak 2001ean baino 11.746 gehiago dira, %3,9 gehitu dira, Estatuko %2,9aren gainetik. Gehikuntza hori azken hamar urteetako (1993-2002) beheranzko joeran inflexio-puntua izan da, baina hala ere ez da nahiko izan 1993ko 358.855 aseguratuak berdintzeko. Izan ere, 1993 eta 2002 artean 48.059 gutxiago dira aseguratuak (%13,4) eta aseguratutako biztanleriaren ehunekoa ere 1993ko %17,1etik 2002ko %15,1era jaitsi da.

Esta misma evolución se produce en los tres territorios, aunque de forma más pronunciada en Alava, donde el descenso de asegurados ha alcanzado el 22,4% en este período (1993-2002), pasando de 49.701 asegurados en 1993 a 38.568 en 2002. En Bizkaia y Gipuzkoa el descenso fue menos acusado con valores en torno al 12% y el 11,8%, respectivamente.

Joera hori bera ageri da hiru lurralde historikoetan. Nabarmenagoa izan da Araban gainerako lurraldeetan baino: azken urteotan (1993-2002) aseguratuak %22,4 jaitsi eta 1993ko 49.701 aseguratutik 2002ko 38.568ra gutxitu dira. Bizkaian eta Araban jaitsiera arinagoak izan dira, %12 eta %11,8 ingurukoak, hurrenez hurren.

Evolución del número de asegurados por territorio histórico. Periodo 1993-2002 Gráfico **2 Grafikoa** **Aseguratuen kopuruaren bilakaera lurralde historikoka. 1993-2002 aldia**




## MODALIDADES DE PÓLIZAS Y COBERTURA

La modalidad de póliza individual o familiar, con un 54,9% del total, continúa siendo la que agrupa al mayor número de asegurados, seguida de la pólizas dirigidas a empresas u otros colectivos concretos (25,8%) y las de mutualidades públicas (19,3%). Situación algo diferente se da

## POLIZA-MOTAK ETA ESTALDURA

Banakako edo familiako polizak guztizkoaren %54,9 hartzen du eta aseguratu gehien batzen dituena da. Enpresentzako edo bestelako kolektibo jakinentzakoek %25,8 hartzen dute eta mutualitate publikoek %19,3. Estatuko egoera ez da berdin-berdina: banakako edo

Distribución porcentual de los asegurados por tipo de póliza (2001-2002) Gráfico **3 Grafikoa** **Aseguratuen portzentajezko banaketa, poliza--motaren arabera (2001-2002)**



en el Estado donde, aunque la modalidad individual o familiar es la más frecuentemente contratada (47,9%), el colectivo asegurado bajo la póliza mutualidades públicas (33,5%) tiene mayor peso que el de la póliza colectiva (18,6%).

Por territorios, Bizkaia se distingue del resto en cuanto al colectivo de asegurados en la modalidad de póliza colectiva, que supera al de mutualidades públicas, así como en el menor porcentaje de asegurados en la póliza de tipo individual o familiar (51,4%) respecto a Alava y Gipuzkoa, con valores en torno al 63%.

familiako polizak dira han ere gehien kontratatzen direnak (%47,9), baina mutualitate publikoen polizarekin babestutako kolektiboa (%33,5) handiagoa da poliza kolektiboa (%18,6) duena baino.

Lurraldez lurralde, Bizkaia besteengandik bereizi egiten da, batetik, poliza kolektiboen kopuruagatik, mutualitate publikoenak baino gehiago baitira, eta bestetik, askoz ere ehuneko txikiagoa izateagatik banakako edo familiako polizan (%51,4) Araban eta Gipuzkoan baino, azken hauek %63 inguruko balioetan baitabiltza.

Distribución porcentual de los asegurados por tipo de póliza según territorio histórico. (2001-2002)

Gráfico 4 **Grafikoa**

**Aseguratuen portzentajezko banaketa, poliza-motari jarraiki, lurralde historikoen arabera (2001-2002)**




En lo que respecta al crecimiento del número de asegurados, la póliza colectiva, continuando la trayectoria ascendente del último trienio (1999-2001), fue la que mayor crecimiento obtuvo (5,8%) respecto a 2001, en tanto que las individuales o familiares y las mutualidades públicas registraron incrementos inferiores, del 3% y 4,2%, respectivamente. Este mismo comportamiento se da en el Estado donde el crecimiento de la póliza colectiva, con un 11,5%, fue aún mayor que en la C.A. de Euskadi.

En cuanto al tipo de cobertura de las pólizas contratadas, cabe destacar que la inmensa mayoría de la población asegurada, un 98,3%, eligió pólizas de asistencia sanitaria general y únicamente el 1,6% optó por contratar otras modalidades de póliza más específicas. Estas últimas comprenden, por un lado, el seguro dental (0,6%), bien como póliza independiente (0,2%) o como un complemento del seguro de asistencia sanitaria principal (0,4%), y por otro lado, las pólizas con cobertura en prestaciones sanitarias específicas (1%).

Aseguratu-kopuruaren hazkundeari dagokionez, poliza kolektiboak azken hiru urteetako (1999-2001) goranzko joerari eutsi dio eta berak izan du hazkunderik handiena, 2001. urtearen aldean. Banakoak edo familiakoak eta mutualitate publikoek %3 eta %4,2ko hazkunde txikiagoak izan dituzte, hurrenez hurren. Joera bera izan da Estatuan, non poliza kolektiboaren hazkundea (%11,5) Euskal AEko baino ere handiago izan baitzen.

Halaber, kontratatutako polizen estaldura-motari dagokionez, azpimarratu egin behar da, berriz ere biztanleria aseguratuaren gehiengo zabalak, %98,3k, asistentzia sanitario orokorreko polizak aukeratu izana. Gainerako %1,6k besterik ez zuten kontratatu poliza-mota espezifikoagoren bat. Azken horien barruan honakoak izaten dira: batetik, hortz-asegurua (%0,6), poliza independente gisa (%0,2) zein osasun-arretako aseguru nagusiaren osagarri gisa (%0,4), eta bestetik, osasun-prestazio espezifikoak estaltzen dituzten polizak (%1).

## ACTIVIDAD ECONÓMICA

El **gasto total** del sector de seguro libre de asistencia sanitaria en la C.A. de Euskadi ascendió a 138 millones de euros en 2002. En este gasto, el pago de honorarios al personal médico y de enfermería, con un 43,1%, y los gastos por hospitalización con un 31,8%, representaron el 75% del total, repartiéndose el 25% restante entre gasto por otros servicios clínicos de diagnóstico (análisis clínicos, radiología y otras exploraciones), gastos de gestión y otros.

## JARDUERA EKONOMIKOA

Asistentzia sanitarioko aseguru librearen sektoreko guztizko gastua 138 milioi eurokoa izan zen Euskal AEn 2002an. Gastuaren baitan, medikuen eta erizaintzako pertsonalaren ordainsariek (%43,1) eta ospitaleratze-gastuek (%31,8) guztizkoaren %75 hartu zuten. Gainerako %25 diagnostikoko zerbitzu klinikoek (analisi klinikoak, erradiologia eta bestelako miaketak), kudeaketa-gastuek eta bestelakoek hartu zuten.

Distribución del gasto de la actividad de seguro de asistencia sanitaria por conceptos — Gráfico **5** **Grafikoa** — **Osasun-asistentziako aseguruaren jarduera-gastuaren banaketa, kontzeptuka**




Por otra parte, el **ingreso total** en el sector de seguros de asistencia sanitaria fue de 144 millones de euros. Este ingreso, casi en su totalidad (94,7%), corresponde a ingresos por primas y, del 5,3% restante, el 3,3% son ingresos por copago y el 1,5% ingresos financieros. En la distribución de los ingresos por territorios históricos, el 10,4% proviene de Alava, el 72,8% de Bizkaia y el 16,8% restante de Gipuzkoa.

El total de **primas** recaudadas en 2002 ascendió a 137 millones de euros, un 5,8% más que el año anterior, representando un 0,31% del PIB de la C.A. de Euskadi. En el Estado el incremento de primas fue superior ascendiendo un 9,6%.

En lo que concierne al período 1993-2002, **el volumen de primas, medido en precios constantes**, creció un 12,3%, muy por debajo de la evolución que ha experimentado el Estado para este mismo período, donde este crecimiento fue del 53,8%.

La **prima media anual** por asegurado para el conjunto de la C.A. de Euskadi fue de 441 euros en 2002, similar a la registrada en el Estado (443 euros), lo que supuso una subida moderada del 1,8% respecto a 2001. Por tipo de

Bestalde, asistentzia sanitarioko aseguruaren sektoreko **guztizko sarrerak** 144 milioi eurora iritsi ziren. Sarreren zatirik handiena (%94,7) primei dagokie. Gainerako %5,3tik %3,3 koordainketako sarrerak dira eta %1,5 finantza-sarrerak. Sarrerak lurralde historikoka banatuta, %10,4 Arabatik dator, %72,8 Bizkaitik eta %16,8 Gipuzkoatik.

2002an bildutako **primak** 137 milioi eurora iritsi ziren, aurreko urtean baino %5,8 gehiago eta Euskal AEko BPGaren %0,31 hartu zuten. Estatuan primek hazkunde handiagoa izan zuten, %9,6 gehitu baitziren.

1993-2002 aldiari dagokionez, **prezio finkoetan neurtutako primen bolumena** %12,3 hazi zen eta aldi berean Estatuan izan zen bilakaeraren oso azpitik geratu zen, %53,8koa izan baitzuten.

Euskal AEko guztizkorako **urteko batez besteko prima** aseguratuko 441 eurokoa izan zen 2002an, Estatukoaren antzeko (443 euro), eta %1,8ko hazkunde neurritsua izan zuen 2001. urtearen aldean. Poliza-motaren arabera,

Evolución del crecimiento del volumen de primas (euros constantes 1993). (1993-2002)

Gráfico 6 Grafikoa

**Primen bolumenaren hazkundearen bilakaera (euro finkoak 1993). 1993-2002 aldia**




póliza, esta subida de la prima media fue del 4,2% en la modalidad individual o familiar, a diferencia de la modalidad "otros colectivos", que descendió un 1,6%, y en las mutualidades públicas donde apenas varió.

Asimismo, por territorios, Gipuzkoa recoge la prima media anual más alta con 451 euros, seguida de Bizkaia con 449 euros y de Alava que, con 382 euros, es el único territorio cuya prima se sitúa por debajo de la media estatal.

**El gasto medio o prima media por habitante de la C.A. de Euskadi** en el sector sanitario de seguro libre fue de 67 euros, un 6,9% superior respecto al año anterior.

batez besteko primaren igoera %4,2koa izan zen banakako edo familiako polizan; 'beste kolektibo batzuk' motan, berriz, %1,6 jaitsi zen eta mutualitate publikoetan apenas aldatu zen.

Halaber, lurraldeka, Gipuzkoak jaso zuen urteko batez besteko primarik altuena 451 eurorekin, jarraian Bizkaiak 449 eurorekin eta Arabak 382rekin. Arabakoa izan zen Estatuko batez bestekoaren azpitik kokatu zen lurralde bakarra.

Osasunaren sektorean, **Euskal AEko biztanleko batez besteko gastua edo batez besteko prima** 67 eurokoa izan zen, aurreko urtean baino %6,9 handiagoa. 1993-

Evolución del crecimiento del gasto medio por habitante (euros constantes 1993). Periodo 1993-2002

Gráfico 7 Grafikoa

**Biztanleko batez besteko gastuaren hazkundearen bilakaera (euro finkoak 1993). 1993-2002 aldia**



La prima media en precios constantes para el período 1993-2002 subió un 14,5%, incremento notablemente inferior al estimado para el Estado que se cifró en un 46,3%.

2002 aldirako batez besteko prima %14,5 igo zen prezio finkoetan. Igoera hori askoz ere txikiagoa izan zen Estaturako estimatutakoa baino (%46,3).

## RECURSOS: PERSONAL

El conjunto de las Entidades de Seguro Libre privado en el sector sanitario puso a disposición de sus asegurados, en el año 2002, a un total de 8.019 profesionales, de los cuales 7.858 eran personal con cualificación sanitaria y los 161 restantes personal no sanitario.

Entre el **personal sanitario** cabe destacar un cuadro médico para atención primaria de 1.285 médicos de medicina general y 331 pediatras, así como 5.494 especialistas para atención especializada. En este ámbito, odontología, tocoginecología y traumatología fueron las especialidades que ofertaron un mayor número de profesionales.

La **modalidad de retribución** más extendida entre el personal sanitario fue el pago por acto médico en un 94,1% de los casos, mientras que un 5,9% correspondió al pago capitativo (es decir en función del número de asegurados asignados al profesional).

## BALIABIDEAK: LANGILEAK

Osasunaren sektoreko aseguru libreko entitateen guztizkoak 8.019 profesional jarri zituen aseguratzaileen eskura 2002an. Horietatik 7.858 sanitarioak ziren eta gainerako 161ak pertsonal ez-sanitarioa.

**Pertsonal sanitarioaren** artean nabarmentzekoa da lehen arretako medikuen taldea, medikuntza orokorreko 1.285 mediku, 331 pediatra eta arreta espezializatuko 5.494 espezialista hartu baitzituen. Horien artean, odontologia, tokoginekologia eta traumatologia izan ziren profesional gehien eskaini zituzten espezialitateak.

Pertsonal sanitarioaren artean, **ordainketa-mota** zabalduena ekintza bakoitzekoa izan zen eta kasuen %94,1 hartu zituen; eta %5,9 hartu zituen ordainketa kapitatiboak, hots, profesionalari egotzitako aseguratu-kopuruaren araberakoak.

Modalidades de retribución al personal de las Entidades aseguradoras. Gráfico **8 Grafikoa** **Entitate aseguratzaileetako langileei ordaintzeko moduak**




## ACTIVIDAD ASISTENCIAL: MÉDICA Y HOSPITALARIA

### Consultas médicas

Un total de 1.164.635 consultas fueron atendidas entre la población asegurada en las ESL (un 3,2% más que en el año 2002), lo que supuso una media de 3,7 consultas por asegurado. Asimismo, las especialidades más frecuentadas por los asegurados fueron traumatología, con un pro-

## ASISTENTZI JARDUERA MEDIKOA ETA OSPITALEKOA

### Kontsulta medikoak

ALEetan aseguratutako biztanleen artean, 1.164.635 kontsulta atenditu ziren (2001ean baino %3,2 gehiago) eta aseguratuko 3,7 kontsulta izan ziren batez beste. Halaber, aseguratuek gehien erabilitako espezialitateak traumatologia (100 aseguratuko 48 kontsultako batez

medio de 48 consultas por cada 100 asegurados, seguida de pediatría y tocoginecología, con una media en ambos casos de 41 consultas por cada 100 asegurados, y oftalmología con 37 consultas.

En comparación con el año 2001, las consultas médicas que han experimentado un mayor incremento de la actividad fueron, en atención primaria, medicina general con un aumento del 8,3%, y en atención especializada, odontología y urología con un crecimiento en cada caso en torno al 6%.

bestekoa), pediatria eta tokoginekologia (100 aseguratuko 41 kontsultako batez bestekoa biek) eta oftalmologia (37 kontsulta) izan ziren.

2001. urtearekin alderatuta, jarduera-gehikuntzarik handiena izan zuten kontsulta medikoak honakoak izan ziren: lehen arretan, medikuntza orokorra (%8,3ko gehikuntza), eta arreta espezializatuan, odontologia eta urologia (%6 inguruko gehikuntza kasu bietan).

Consultas en Entidades aseguradoras según especialidades. 2002 Gráfico 9 Grafikoa **Kontsultak entitate aseguratzaileetan, espezialitateen arabera. 2002**




Por último hay que resaltar que la relación entre las consultas sucesivas y las primeras consultas atendidas a través de las Entidades de Seguro Libre en la C.A. de Euskadi tomó el valor de 0,89, es decir, el número de primeras consultas superó al número de consultas sucesivas en un 11%.

Azkenik, nabarmentzekoa da Euskal AEn aseguru libreko entitateen bidez atenditutako lehenengo kontsulten eta ondorengo kontsulten arteko erlazioa 0,89koa zela, hau da, lehenengo kontsulten zenbatekoa ondorengoena baino %11 handiago izan zela.

**Actividad asistencial hospitalaria**

Los pacientes procedentes de aseguradoras médicas ocasionaron un total de 40.186 ingresos hospitalarios, un 7,8% más respecto al año 2001, representando el 14,7% del total de los ingresos en los hospitales de la C.A. de Euskadi en el año 2002.

Asimismo, los pacientes de aseguradoras privadas causaron un total de 147.296 estancias, un 6,2% más que el año anterior, representando el 6,1% del total de las estancias en los centros hospitalarios vascos. Sin embargo, este aumento del número de estancias no supuso un incremento de la estancia media por paciente, manteniendo el mismo promedio de 3,7 días del año anterior. Asimismo, cirugía general, traumatología, ginecología y medicina interna fueron las especialidades que ocasionaron un mayor número tanto de ingresos como de estancias.

**Ospitaleetako asistentzia-jarduera**

Aseguratzaile medikoetatik etorritako pazienteek 40.186 ospitaleratze eragin zituzten, 2001ean baino %7,8 gehiago eta Euskal AEko ospitaleetan 2002an izandako ospitaleratze guztien %14,7 hartu zuten.

Aseguratzaile pribatuetako pazienteek 147.296 egonaldi ekarri zituzten, aurreko urtean baino %6,2 gehiago, eta bertoko ospitaleetako egonaldien %6,1 hartu zuten. Egonaldien kopurua gehitu bazen ere, ez zen gehitu biztanleko egonaldia eta aurreko urteko 3,7ko batez bestekoari eutsi zion. Ospitaleratze eta egonaldi gehien eragin zituzten espezialitateak kirurgia orokorra, traumatologia, ginekologia eta barne-medikuntza izan ziren.

Estancias hospitalarias de pacientes procedentes de Entidades aseguradoras según especialidades. 2002

Gráfico **10** **Grafikoa**

**Aseguru entitateetatik datozen pazienteen ospitale-egonaldiak, motaren arabera. 2002**




Del total de intervenciones quirúrgicas, 29.066 fueron realizadas con hospitalización, lo que significó que aproximadamente un 72,3% del colectivo hospitalizado en régimen de aseguradoras médicas fue sometido a una intervención. El resto, 11.802 intervenciones, fueron practicadas sin requerir ingreso hospitalario, es decir, se hacen en hospital de día de forma ambulatoria.

En cuanto a la atención de urgencias, el número total de urgencias atendidas en centros hospitalarios con cargo a Entidades de Seguro Libre ascendió en 2002 a 7.971, de las cuales tan sólo un 2,6% causaron ingreso hospitalario, proporción ésta que se sitúa por debajo del 13,5% de los ingresos hospitalarios que ocasionaron el total de pacientes atendidos en los servicios de urgencias de los hospitales de la C.A de Euskadi en ese mismo año, según datos de la Estadística Hospitalaria.

Ebakuntza kirurgiko guztietatik 29.066 ospitaleratuta egin ziren, beraz, aseguru medikoen erregimenean ospitaleratutako gaixoen %72,3 inguruk ebakuntzak izan zituzten. Gainerako 11.802 ebakuntzek ez zuten ospitaleratzerik behar izan, hots, ospitalean egin ziren egunaz, modu anbulatorioan.

Larrialdiei dagokienez, ALEen kontura ospitaleetan atenditutako larrialdiak 7.971 izan ziren 2.002an. Horietatik, %2,6k bakarrik ekarri zuten ospitaleratzea. Ospitaleetako Estatistikaren arabera, urte berean Euskal AEko ospitaleetako larrialdi zerbitzuetan atenditutako paziente guztiek %13,5 ospitaleratze ekarri zituzten eta ondorioz, zifra horren oso azpitik kokatu zen ALEen kontura atenditutakoek eragindako ospitaleratze-kopurua.